

AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAKO MERKATARITZA-INDIZEA. 2025eko AZAROA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,8 hazi dira 2025eko azaroan


Aurreko hilabetearekin alderatuta, salmentek % 0,8 egin dute gora

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,8 handitu dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak zuzendu ondoren.

Aurreko hilabetearekin (2025eko urria) alderatuta, prezio konstanteetako salmentak % 0,8 igo dira, dagozkien urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteetan



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmenten urtez urteko bilakaera positiboa izan da bai *Gainerako produktuak* sektorean, bai *Elikadura* sektorean. Igoera % 4,8koa eta % 0,3koa izan da hurrenez hurren, 2024ko azaroarekin alderatuta.

Hilabete arteko datuei dagokienez (2025eko azaroa 2025eko urriarekiko), joera goranzkoa izan da *Gainerako produktuak* sektorean (% 2,5eko igoerarekin). *Elikagaiak* sektorean, aldiz, % 0,1eko jaitsiera egon da.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2025

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,8	0,8	0,7
Araba/Álava	0,4	0,3	-0,2
Bizkaia	2,4	1,0	1,3
Gipuzkoa	1,5	0,6	0,1
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	0,3	-0,1	0,5
Gainerako produktuak	4,8	2,5	1,2
Enplegu-indizea			
Euskal AE	-0,4	0,2	1,3

(p) Behin-behineko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2025eko Abenduaren 29a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,4 igo dira Bizkaian, % 1,5 Gipuzkoan eta %0,4 Araban.

Hil arteko datuei dagokienez, salmentek % 1,0 egin dute gora Bizkaian, % 0,6 Gipuzkoan eta % 0,3 Araban.

Urteko lehen hamaika hilabeteetako metatuan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 0,7 egin dute gora 2024ko aldi metatu beraren aldean. % 1,3ra iritsi da Bizkaia kasuan. Gipuzkoan, azarora arteko metatua % 0,1 hazi da, eta Araban, berriz, % 0,2ko jaitsiera izan da.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako **langile okupatu**en kopurua % 0,4 jaitsi da 2024ko azaroarekin alderatuta. Hilabete arteko datuei dagokienez, langileen indizeak % 0,2 egin du gora. Azarora arteko urteko metatuan % 1,3ko hazkundera izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatzen dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilaren indizea kalkulatu da laginaren **% 96,97 kontuan izanik**.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62